

JOXEBE IMAZ.

GURE ERMITA ZAINZAILEA

AMAIA OLKOTZ



Ermita ezin zen egoera hartan eduki.

OARSO urtekariaren txoko honetan, bizia darion emakume baten hitzak aurkeztu nahi dizkizuegu. Bera, apalki, lan isila burutuz herriari mesede itzela egiten aritu zaio. Berari esker ikus dezakegu Madalenaren ermita txukun eta dotore. Beraz, lau hitz hauek direla medio, gure esker ona adierazi nahi diegu, bai Joxebe Imaz ermita zaintzaileari, bai berari lagundu dioten eta ermitaren alde zerbait egin duten guztiei.

Hurrengo lerroetan, Joxebak berak azalduko dizkigu ermitari buruz dakizkien gorabehera guztiak.

OARSO Noiztik zara ermitako serora?

JOXEBE Ez, ez ¡Ni ez naiz serora! ¡Ermita zaintzailea baidzik! Eta hori argi ta garbi geratzea nahi dut. Zure galderari erantzunez, zera esan behar dut, orain dela hamalau urte hasi nintzela, Pepita Salegi nire lehengusina hil zenean. Hori baino lehen, pixka bat laguntzen nien berari eta Candida Arrietari. Baina ez nintzen ez giltzaz ez lanaz arduratzen.

OARSO Lehen Udaletxeak izendatzen omen zituen serora eta ermita zaintzaileak. Zu ere Udaletxeak hautatu al zintuen?

JOXEBE Ez. Nire lehengusina hil zenean, giltza hartu nuen eta berak eta Candidak egiten zituzten lanak egiten hasi nintzen. Baina Udaletxeak ez zuen zerikusirik izan.

OARSO Zergatik hartu zenuen erantzunkizun hori?

JOXEBE «Barriyoko» gauza zen, badakizu. Eta gainera, nik hartzen ez baldin banuen, auskalo nor jarriko zuten, beraz neronek egitea erabaki nuen.

OARSO Madalenaren ermita zaintzen hasi zarenez geroztik, aldatu al da zerbait?

JOXEBE Bai. Giltza hartu nuenean, Don Robertorengana joan nintzen. Ordurarte, ermitan biltzen zen dirua, parrokira eramaten zen. Nik berriz, diru hori ermitan sortzen ziren gastuetarako erabiltzea proposatu nuen eta Don Robertok baimena eman zidan. Hortik aurrera ermitan ez dugu ia ezeren beharrik izan. Pepitak eta Candidak zaintzen zutenean ez zuten gauza haundirik egiteko modurik. Askotan bere sakeleko dirutik ordaintzen zituzten lore eta kandelak. Bai emakume zintzoak! Nik hartu nuenetik, ordea apainago egoten da, berriak baino diru gehixeago biltzen dudalako, noski. Eta jende gehiago joaten da ikustera eta elizkizunetara.

OARSO Madalenaren ermita zaintzea tradizioa al da zure familian?

JOXEBE *Baietz esan dezakegu. Nik baino lehen, nire lehengusinak zaindu zuen, Pepita Salegi Imazek, eta honek baino lehen, nire amonak, hau da Felipa Berasartek. Felipa, nire aita eta Esteban Imazen ama zen. Amonak beste emakume batekin zintzen zuen.*

OARSO Zein da ermitan egiten duzun lana, Joxebe?

JOXEBE *Normalki, igande goizetan ermita irekitzen dut, zeren ezin bait da beti itxita eduki. Eta joaten naizenean, garbitu egiten dut. Beste lan bat kandelak eta loreak jartzea izaten da. Jende askok eskatzen dit bere senideen alde kandelak jartzeko Madalenari. Jendeak botatzen duen dirua biltzea da nire beste betebeharretariko bat. Azkenik, Madalena apaintzen dut. Lan honetan emakume batek laguntzen dit. Urte askotan zehar, Dorotea Aierbek egin zuen lan hau, baita poliki egin ere! Dorotea, nire irakaslea izan zen txikia nintzenean. Madalenetan, lana areagotu egiten zait, elizkizunetarako dotoretu behar izaten bait dut ermita. Baina halere, aisa egiten dut laguntzaile pila ederra daukat eta.*

OARSO Madalenaren ermitan denetik egin dela esan daiteke. Legendun edo leprosoen eritegi izatetik kanpaiak egiteko lekua izatera igaro zen. Zein da ermitaren gaur egungo funtzioa?

JOXEBE *Ermitan ezer gutxi egiten da orain, elizkizun pare bat urtean. «Octava de Corpus» da bat. Auzategi eta inguruetako hilen aldeko meza ximple bat egiten da. Bestea, berriz, Madalenetako salbe eta prozesioa. Azken hau oso ederra izaten da. Lehen, Corpus Christi egunean, prozesio bat izaten zen parrokitik ermitara. Kale osoan zehar maindire zuriak jartzen ziren leiho eta balkoietan.*

OARSO Jakin badakigu ermitaren azken konponketa egiteko lan eskerga egin zenuena. Zuri eta zirikatatu zenuenari esker konpondu zela esan daiteke. Zer egin zenuen hain zuzen?

JOXEBE *Ez da hainbesterako! Ni mugitu izan ez banintz ere egingo zuketan konponketa. Baina egia da, aurrera ta atzera ibili nintzen; orain Udaletxera joan eta gero nik dakit nora. Baina jendea oso ongi portatu zen nirekin, Udaletxe-koak bereziki. Ermita ezin zen egoera hartan eduki, horma bat erortzeko zorian zegoen, barruan ez geneukan urik, ura ondoko garajetik hartu behar izaten genuen... Ez ezin zen luzarotan horrela eduki.*

OARSO Adizu, ta zure eskuetan balego, besterik egingo al zenuke?

JOXEBE *Nik orain primeran ikusten dut. Ez dut ermitak ezer behar duenik uste. Baina nire eskuetan balego, maizago irekiko nuke. Gauza gehiago egingo nituzke bertan. Ez niregatik, jendearengatik baizik. Jende askok esaten dit orain ermita apain dagoenez, gehiagotan irekitzea gustatuko litzaiokeela, baina...*

OARSO Atsegin al duzu egiten duzun lana?

JOXEBE *Bai. Bihotzean daramat. Neretzat satisfakzio handia da, batez ere jendeak egiten dudana lana gogoko duela jakitean. Askotan esaten didate, «bai polita dagoela ermita, Joxebe», edo ta «Zer lore politak jarri dituzun!», eta honek pozez betetzen nau. Bestetik, saltsan ibiltzea asko gustatzen zait. Honela errazago betetzen ditut eguneko hogeitalau orduak.*

OARSO Zein da ermitan daogen gauzarik estimatuena?

JOXEBE *Ermitan Madalena, San Jose eta Errosarioko Amaren irudiak daude. Jendeak gehien maite duena Madalenaren irudia da. Bai, ermitarekin batera hau da jendeak gehien estimatzen duena. Erreteriariko jendeak debozioa dio ermita honi.*

OARSO Lehen jendeak asko laguntzen dizula esan diguzu...

JOXEBE *Bai, pila bat. Musu truk gainera. Zer esango nuke ba... Korua gaizki zegoenean, zurkaiztu egin zuten. Beti izaten dut furgoneta organoa eramateko. Jendeak dirulaguntza ugari ematen du. Nire «barriyuan» emakume eta lagun zoragarriak dauzkat. Madalenak iritsi baino lehen beti esaten didate «Laguntzarik behar al duzu, Joxebe?». Zoragarriak dira! Udaletxea ere oso ongi portatzen da. Bai, jende askok laguntzen dit.*

OARSO Azkenik, Joxebe, ba al duzu ermitari buruzko anekdotaren baten berri?

JOXEBE *Beno... esaten dutenez, legendunak etortzen zirenean, atetik sartu eta lorategitik joaten omen ziren. Gero ere, zera esaten da, neskaharrak joaten zirela ermitara Madalenari senarra eskatzera... jakingo duzue, noski.*

Baina bada hirugarren anekdota bat ere. Lehen, Madalenak, haurren aho-legarra sendatzen zuela sinesten zen. Honetarako hamar xentimo bota behar omen zitzaizkion ermitan. Oiartzun, Pasaia, Altza eta Erretereria inguruko jende asko etortzen omen zen ermitara eskakizun hori egitera. Behin, esnezale bati haurra aho-legarrak jota gaisotu omen zitzaion. Hala, haurra bakarrik ez uztearren, ermita ondotik egunero igarotzen zen gizinezko bati hamar xentimokoa eman zion Madalenari botatzeko. Handik bizpahiru egunetara egin omen zuten topo esnezaleak eta gizonak, eta baita aurrenekoak mesedea biziki eskertu ere, alabatxoa sendatu zitzaiolako. Ta, ez zaio ba, hantxe gogoratzen gizonari dirua botatzea ahaztu zitzaiola! Fedearen indarra!

OARSO Bai istorio politak! Baina orain amaitu beharrean gaude. Eskerrikasko, Joxebe. Norbaitek ordainduko ahal dizu inoiz egiten ari zarena!